BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3989

EBAZPENA, 2013ko uztailaren 29koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, «TNO Built Environment and Geosciences» erakundeak aurkeztutako eskabideari buruzkoa.

Gaia: substantzia arriskutsuek esku hartzen duten istripu larriak prebenitzeko segurtasun txostenak ebaluatzeko erakunde baimendutzat aitortzea.

Erref.: AG-EE02-2013.

Ikusi da «TNO Built Environment and Geosciences» erakundeak aurkeztu duen dokumentazioa, honako baimen hau berritzeko egin den eskabidearen inguruan: substantzia arriskutsuek esku hartzen duten istripu larriak prebenitzeko segurtasun-txostenen erakunde ebaluatzaile izateko baimena.

Ikusi da Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2006ko ekainaren 15eko Agindua, substantzia arriskutsuek esku hartzen duten istripu larrien prebentzioarekin zerikusia duten dokumentazioari, ebaluazioari eta ikuskatzeei buruzkoa (2006-07-12ko EHAA).

Agindu horren 6. artikuluan adierazitako baldintzak betetzen direla kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– «TNO Built Environment and Geosciences» erakundeari substantzia arriskutsuek esku hartzen duten istripu larrien prebentzioarekin zerikusia duten segurtasun-txostenak ebaluatzeko baimena berritzea. Erakundearen egoitza nagusia Holandan dago (Pincetonlaan, 6, 3584 CB Utrecht) eta Sant Feliu de Llobregaten ere badu egoitza (Església 4, 1. solairua).

2.– Baimen horrek hiru urterako balioko du, betiere 2006ko ekainaren 15eko Aginduaren 6. artikuluan adierazitakoa betetzen jarraitzen bada (2006-07-12ko EHAA).

3.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Beraz, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Industria Sailburuordetzaren aurrean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean, hala agintzen baita 4/1999 Legean. Lege horrek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 29a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA.